

LAUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C2 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **1 h 45 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa dauzka. Biak egin behar dira. • Bi irakurgai eta guztira 10 galdera. Balio berekoak (2 puntu). Gainditzeko, 5 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. • Testuen luzera guztira: 900 hitz gehienez. 	35 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Ariketa bakarra egin behar duzu, eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. 	70 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketa** horretarako eman zaizun **aparteko orrian**.
- Azterketa-koaderno hau ez da jasoko, **zuzetzat da**.

1. ariketa

Identifikatu testua osatzeko falta diren testu zatiak.

Markatu testuko hutsuneak betetzeko (1, 2, 3...) zein diren testu zatirik egokienak (A, B, C...).

Aukeran ematen zaizkizun **testu zatitako bat sobera** dago.

SINDIKALISMOA INDUSTRIA POLITIKAN

Sindikatuak buruzko azterketetan ez dira kontuan hartzen betetzen dituzten eginkizun sozial eta ekonomiko guztiak. **1**. Sindikalismoak, ordea, baditu bestelako adarkadurak ere, gure ingurunean agertzen direnak. Horietako bat industria-politikan duten eragina eta esku-hartzea litzateke, izan modu jakitunean edo ez. Ez naiz ari esparru horretan egin ditzaketan hausnarketez eta luzatu ditzaketan proposamenez, zerga-politikan, osasun-arloan, aurrekontu eta gastu publikoan, lurralde-antolaketan, hezkuntza-diseinuan, etxebizitza-politikan edo migrazioaren esparruan egin ditzaketenen modukoez. Sindikatuak beraien ekintzaren bitartez industria-politikan eragiten dituzten elementuez eta industria-politikako interbentzio gisa kalifikatu daitezkeen ekimen zehatzez ari naiz.

Ikuspegi orokorretik eta modu indusituan, lan-egonkortasunak eta ordainsarien hobekuntzak eragin positiboa dute enpresa eta lurralde-mailetan lehiarako abantailak eraikitzean. 1970eko hamarkadaren amaieraz geroztik, froga enpirikoa dago soldata-igoeren eta esportazioen hobekuntzaren arteko korrelazioari buruz, eta ikusi besterik ez dago zein herrialdek dituzten Europar enpresa-jardueraren adierazle onenak eta haien soldata-mailak zein diren. Lurralde baten eta bertako enpresen kokapen estrategikoa baldintzatzen duten faktoreak ugariak izan arren, badago harreman bat, egitura produktiboaren eta soldata-harremanen artean atzeraelikatzen dena. **2**.

Gainera, industria-plan aurreratuetan eta zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-planetan jasotzen den literaturarekin talka egiten dute. **3**.

Hala, ikuspegi arduratsu eta adimentsu batetik, enpresa barruko lan-harremanen berezko tentsioek, ekipamenduko eta modernizatorako inbertsioez gain, antolaketa- eta kudeaketa-hobekuntzak bultzatzen dituzte ekoizpen-, merkataritza- eta finantza-prozesuetan. Lan-egonkortasuna langileen gaitasun multifuntzionalak eraikitzeke eta kualifikatzeko oinarria da. **4**. Hori guztia, motibazio-, kualifikazio- eta antolaketa-dimentsioak alegia, funtsezko elementuak dira enpresaren berrikuntza gaitasunerako. Industria-kudeaketa eta -harremanen inguruan egindako ikerketa ugarien arabera, soldata altuetan eta egonkortasunean oinarritutako pizgarriek eragin nabarmenak dituzte berrikuntzan, produktibitatearen hazkunderan eta finantza-errentagarritasunean. Horretaz gain, gure inguruan badira zenbait esperientzia eta proposamen norabide horretan bideratuak, hala nola Arrasateko kooperatiba-esperientzia, NER enpresa-taldea, Euskaliten Kudeaketa Aurreratuaren Eredua, langileek enpresaren kudeaketan, mozkinetan eta jabetzan parte hartzearen aldeko apustua, *Arizmendiaretaren Lagunak* elkarteak bultzatua eta indar politiko guztiek babestua bi parlamentu autonomikoetan.

Aldiz, kontratazioa eta kaleratzea erraztera eta negoziazio kolektiboan sindikatuen posizioa higitzera bideratutako malgutasun-politikek errotazio-tasa handiak eragiten dituzte langileen artean, soldata-kostuen presioa murrizten dute, eta ahuldu egiten dituzte konfiantza, leialtasuna, lanerako dedikazioa, berriazko prestakuntza, belaunaldien arteko gaitasun-transferentzia, ezagutzak lehiakideengana ihes egiteko oztopoak... **5**. Industria-politikek bilatu ohi duten helburuen kontrakoa, hain zuzen ere. Lan sindikala, baina, oztopo zaie enpresariei norabide horretan irristatzeko.

GARMENDIA, J. Naiz. 2022-05-29.
Egokitua

1. ariketa. Txertatu testu zatia

OHARRA: Aukeran ematen zaizkizun **testu zatitako bat sobera dago.**

- A. Antolaketa eta lan-giro egokiak, ordainsari apropos eta bidezkoek, komunikaziorako eta parte hartzeko bide horizontalek eta barne promozioko aukerek, besteak beste, motibazioan eta erantzukizunean laguntzen dute.
- B. Sindikatuek egokitu egin beharko dute langileen osaeran gertatzen diren aldaketetara, haien antolaketa eta ekintza orain arte sindikatuen ekintzari uko egin dioten sektoreetara egokituz.
- C. Ondorioz, produktuen eta zerbitzuen kalitatean eragin negatiboa izan ohi dute eta ikerketan, garapenean eta berrikuntzan sozialki hobereana baino ahalegin txikiagoa egitea eragiten du.
- D. Lan sindikalak, beraz, bultzatu eta presio egiten du ekoizpen-sarea igaro dadin produktibitate, balio erantsi, eduki teknologiko eta mota guztietako berrikuntza-maila garaiagoetara.
- E. Izan ere, lehia-abantailak sortzeko orduan, soldata-murrizketaren eta lan intentsitatea areagotzearen norabideko estrategiak baliatzea zentzugabea da epe luzera, ezin baitira denboran eutsi, eta eduki teknologiko gutxiko segmentuetan ez dute ibilbiderik herrialde periferikoen lehiaren aurrean.
- F. Sindikatuen funtsa, sarri, langileen eskubideen eta interesen defentsari eta lan-baldintzen hobekuntzari mugatu izan zaie.

■ Idatzi dagokion letra ondoko lauki hauetan:

Hutsuneak	1	2	3	4	5
Testu zatiak					

Soberakoa

OHARRA: Soberako aukera hau ez da jaso behar erantzun-orrian.

2. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

PUBLIKO/PRIBATUA

Elinor Ostrom Nobel saridunak «pribatu» eta «publiko» hitzak modu eskasean erabiltzen ditugula esan zuen, zoologoek planetako animalia guztiak sailkatzeko bi hitz baino erabili ezingo balute bezala: elefantea edo sagua. Elinor Ostromek, ekonomiako Nobel saria lortu duen lehen emakumeak, eskola instituzionalistaren barnean ondasun komunalen (commons) kudeaketari eta gobernantzaren azterketari eskaini zien denbora gehien.

Teoria ekonomikoan arreta berezia eskaini zaie erabilera komuneko ondasun eta baliabideei, esaterako, basoei, ureztatze-sistemari edota arrantzari. Arreta horren arrazoia hau da: ondasun hauen erabilera baztertzaila ez den heinean, baliabide hauek partekatzen dituztenek, norbanakoen interes arrazionaleri jarraituz, guztien kalterako izan daitekeen gain-esplotazioa egiteko arriskua dagoela. “Komunen tragedia” izenez ezagutu izan da dilema hau eta, irtenbide bezala, estatuaren interbentzioa edota baliabideen pribatizazioa proposatu izan da.

Ostromek mundu zabaleko hainbat eredu aztertu ondoren (Suitza, Nepal, Japonia, Turkia, Kanada, Sri Lanka...), ondorioztatu du komunitateak gai izan daitezkeela praktika komunal instituzionalizatuen bitartez, baliabide komunak kudeaketa iraunkorra bermatzeko, ingurumena andeatu gabe. Zentzu honetan, kudeaketa eta jabego publiko eta pribatuaren parean, kudeaketa eta jabego komunala kontzeptua gehitu zuen. Jabego komuna gaizki kudeatzen dela dioen ideari aurre egin zion eta kasu enpirikoek gehienetan kontrakoa erakusten dutela azalarazi zuen. Frogatu zuen baliabide komunak erabiltzaileek sarritan erabakimenerako eta interes-gatazkak maneiatzeko arautegi sofistikuak garatzen dituztela eta emaitza onak erdiesten. Bide batez, herritartasuna rol mugatu jakin batzuetara –boto-emailea eta kontsumitzailea– murrizten duen ikuspegia gainditu zuen.

Enpresen esparrura ideia horiek ekarrita, ebidentzia enpirikoak erakusten digu aniztasun handia dagoela. Kapitalismo garaikidearen bilakaerak ondasun eta zerbitzuak eskaintzen dizkiguten antolakunde aniztasun zabala utzi digu. Hori gutxi balitz bezala, beste merkatu mota batzuk ere azaldu zaizkigu azken hamarkadetan, hala nola jabego pribatu eta publikoko enpresak diharduten oligopolio misto arautuak, edota sektore publiko barruko kuasimerkatuak. Akademiak gutxi aztertu dituen merkatu mota berri hauek ez dira jarduera ekonomikoaren periferian aurkitzen, nukleoan baizik, esaterako, banka, energia, garraioak, telekomunikazioak, osasuna, irakaskuntza, pentsioak, aseguruak...

Errealitateak kontzeptualki sinplifikatzeko joera (publiko/pribatu dikotomia) dago. Jabegoari erreparatuz gero, sektore pribatuan enpresa txiki familiarak eta inbertsio-funtsek kontrolaturiko multinazionalak aritzen dira, pribatu-publiko enpresa mistoekin batera. Antzeko aniztasuna dago enpresa publikoen artean. Jabego-eskubideetan sakontzerakoan eta analisirako tresna gehiago erabiltzen direnean, ikus genezake elefante zein arratoi mota eta beste animalia mota ugari dagoela.

Euskal Herrian, Elinor Ostromek aldarrikatutako komunak kudeaketa kolektiboaren esperientzia ugari daude, eta nabarmena da Ekonomia Sozialak eta kooperatibismoak duen presentzia. Gure industria eta berrikuntza-politika ezin daiteke ulertu kooperatibismoaren inspirazio eta eraginik gabe. Kooperatibismoaren balio, printzipio eta kudeaketa-ereduak indarra hartzen ari dira. Izan ere, alderdi politiko guztiek beren hauteskunde-programetan kooperatibismoaren bultzada defendatzen dute.

Horren esperientzia aberatsak izanik, harritu eta larritu egin nau aspalditik gure hezkuntzaren inguruko eztabaidaren nondik norakoak: nola jabego publiko-pribatu ardatzean korapilatzen eta laburbiltzen diren dimentsio anitzeko problematikak (kalitatea, soziolinguistika, berdintasun-aukeraren bermea, elitismoa, doakotasuna, ikastetxeen autonomia, tokian eskola komunitatearen inplikazioa, laikotasuna, kultur aniztasuna, murrizketak, helburu sozialen arabera aurrekontuen banaketa ekitatekoa...). Akaso, erreferentzia alfabetatze-sare herritarra izan daiteke; izan ere, formalki jabego pribatukoa izanda ere, inork ez du zalantzan jartzen bere funtzio publikoa.

GARMENDIA, J. Naiz. 2018-02-18.
Egokitua

2. ariketa. Aukeratu erantzuna

6. **Pribatu eta Publiko hitzak direla eta, zer dio Ostromek?**
 - a) Beren adiera gero eta orokorragoa dela.
 - b) Orokortasuna dutela ezaugarri, baina errealitatea islatzeko baleko direla.
 - c) Aniztasun handia ezkututzen duten kontzeptuak direla.
7. **Zergatik eskaintzen die teoria ekonomikoak arreta berezia erabilera komuneko ondasunei?**
 - a) Balizko ustiaketa desegokiak kezka sortzen duelako.
 - b) Publikotasunak dakarren kaltea argiro frogatzen dutelako.
 - c) Gaiak eztabaida dakarrelako: ondasunok estatalizatu ala privatizatu.
8. **Zein da Ostromen ikuspegia komuneko ondasunen inguruan?**
 - a) Teorikoki bada ere, jabego komun kudeaketak arau sofistikatuei erantzuten diela.
 - b) Baliabideen kudeaketan, herritarren rol mugatua gainditzeko beharra dagoela.
 - c) Herritarrak gai direla ondasun komun kudeaketari taxuz erantzuteko.
9. **Zer dio artikulugileak publiko/pribatu dikotomiaren inguruan?**
 - a) Jabegoari bakarrik erreparatuz gero, errealitatea distorsionatu egiten dela.
 - b) Dikotomia horrek desitxuratu egiten duela errealitatea, orokortu.
 - c) Egoera sakon aztertzeko tresna zehatzagoak behar ditugula.
10. **Zerk larritzen du Garmendia gaia hezkuntzara ekartzean?**
 - a) Ikastetxe publiko eta pribatuei buruzko aurreiritziek.
 - b) Hezkuntzaren arazoak identifikatzeko, hezkuntza komunitateak erakusten duen itsumenak.
 - c) Hezkuntzari buruzko erabakietan, ikastetxeen jabego motari ematen zaion garrantzi handiegiak.

Ariketa: Idatzi iritzi-artikulu bat *Administrazioa Euskaraz* aldizkarirako

- Jarraian, egunkari edota aldizkarietan argitaratutako **zenbait testu-aipamen** aurkituko duzu. **Bat aukeratu** eta, bertan jasotzen den informazioa oinarri harturik, **iritzi-artikulua** idatzi behar duzu.
- **Gutxienez 250 hitz** idatzi behar dituzu.
- Testu antolatua eta koherentea egin behar duzu.
 - Iritziak **azaldu** egin behar dituzu.
 - Ideiak **garatu eta lotu** egin behar dituzu.
 - Ezin dituzu hitzez hitz kopiatu lagungarri gisa ematen zaizkizun aipamenetako esaldiak.

Oharrak

- Oso kontuan hartu behar dituzu **gaia** eta eskatzen zaizun **testu mota**.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik**.
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Eskatutako guztiari erantzun diozun eta nola: egokitasuna.
 - Ideiak garbi adierazi dituzun: koherentzia eta kohesioa.
 - Euskara nola erabili duzun: zuzentasuna eta aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA AIPAMENEN OSTEAN DAUKAZU.
EGIN ARIKETA HORRETARAKO EMAN ZAIZUN APARTEKO ORRIAN.**

TESTU AIPAMENAK

1.

FUNTZIONARIOAK, LANPOSTUAN BETIKO?

Funtzionarioak beren lanpostutik kendu ahal izango dira, beren jardunaren ebaluazioan lortzen duten emaitzaren arabera. Hala ezartzen du Estatuko Administrazio Orokorraren Funtzio Publikoari buruzko lege-aurreproiektuak. Testuak aurreikusten du lanpostua lehiaketa bidez lortu duten langileak baztertu ahal izango direla zereginak behar bezala betetzen ez badituzte, errendimendua nahikoa ez badute edo kargurako eskatzen diren eskakizunak bete ezin badituzte, ezta prestakuntza gehigarriaren bidez ere.

Funtzionarioen jarduera balioesteko hainbat elementu hartu beharko dira kontuan: helburu estrategikoetarako ekarpena eta inplikazioa, pertsonen motibazioa, gaitasun profesional berriak eskuratzeko borondatea... Jardunaren ebaluazioan emaitza negatiboak etengabe lortzeak lehiaketa bidez lortutako lanpostutik mugiaraztea ekarriko du.

DELLE, L. *El Pais*. 2022-12-21.
 Egokitua

2.

MIGRAZIOA? EZ, MILA ESKER

Argiki erran dezagun: migrazio masiboa gaitz bat da, hutsik geratzen diren herriak hipotekatzen dituelarik; migrazioa jasotzen duten herriak oztopatzen eta desartikulatzen ditu, batez ere euskaldunak bezala bere migrazio-politikak erabakitzeko boteretik ez dutenak; beren etxeak uzten dituzten pariak esklabo bihurtzen ditu; tokiko langileak desarmatzen ditu, beren gizarte-konkistak arriskuan jarriz. Munduko mapa gainean zoriotsu, aberatsenek barre egiten dute gure kontura, eta beren baliabide mediatikoekin *moralina* merke bat eta katekesi sasi-humanista bat txertatzen dizkigute, sasi-progresista guztiek migrazio masiboa txalotu dezagun *mana* berri baten gisan.

ESPARZA, J.M. *Berria*. 2022-10-25.
 Egokitua

3.

SOZIOSANITARIOAK ERI DAUDE

Gizarte Segurantzak erretiro aurreratua hartzeko aukera ematen die nekagarriak eta arriskutsuak diren zortzi lanbideri. Emakumeak gehiengoak diren lanbide bat bera ere ez da multzo horretan sartzen. SATSEK, LABek eta ELAk eskatu dute sektore soziosanitarioa talde horretan sartzeko.

COVID-19aren pandemiak azalera atera zituen langileen lan-baldintza gogorak, baina balkoietako txaloek ez zuten egoera aldatzeko adina indar izan: zaintzaren esparruko eta sektore soziosanitarioko langileen jarduerak ez du merezi duen errekonozimendua jasotzen.

SATSEK salatu du lanbidearekin «sentsibilizazio falta handia» dagoela, bai gizartean eta baita instituzioetan ere. Erretiratzeko gutxiengo adina igo dute azken urteetan, eta uste du erizainek «eskubidea» dutela erretreta aurreratzeko.

IZTUETA, M. *Berria*. 2022-10-30.
 Egokitua

4.

KUTSADURA HILGARRIA

Atmosferaren kutsadura da «Gaixotasun eta heriotza goiztiarretarako munduko ingurumen-arriskuaren faktorerik handiena». 9.000.000 heriotza goiztiar inguru eragiten ditu gaur egun, «gerrak, terrorismoak, malariak, GIBak, tuberkulosiak, drogek eta alkoholak baino askoz gehiago oraindik», eta goraka ari den zifra dugu.

Bistakoa da «herrialde gehienek ezer gutxi egin dutela arazo handi honi aurre egiteko», eta herrialdeen aberastasunak ere badu zerikusirik: «diru-sarrera txikiko eta ertaineko herrialde gutxi batzuek baino ezin izan dute kutsadura kontrolatzeko baliabideak bideratu edo aurrerapenak lortu».

Arazoa globala da, ordea: munduko ia biztanle guztiek arnasten dute aire kutsatua; izan ere, gero eta ebidentzia handiagoa dago haizeak mundu osora barreiatzen duela kutsadura; Europan arnasten dugun aire kutsatuaren zati handi bat Europatik kanpo sortzen da.

GONZALEZ, J.A. ABC. 2022-05-18.
Egokitua

5.

SEGURTASUNAREN BORROKA IDEOLOGIKOA

Segurtasuna betidanik izan da eskuinaren eta ezkeraren arteko borroka ideologikoaren zati. 2023. urtea, esaterako, segurtasunari eta ordenari dagozkien bi gairekin hasi da: bata, “Soilik bai da baietz” Legea, zeinak zigor-kodearen zenbait manu aldatu baititu; eta bestea, arma zuriekin egindako erasoak.

Horren aurrean, hedabide askok kalea bortxatzailez eta labanazalez beteko den irudia zabaldu dute, arduragabe. Eta egoera horretan, eskuinak erraz aldeztu ahal izan du ikuspegi zigortzailea; ezkerria, aldiz, segurtasunaren inguruko borroka kulturala egiten asmatu ezinik, beste muturrean geratu da, labanazaleen eta bortxatzaileen askatzaile gisa edo.

Gertakarien benetako dimentsioa eta kausak aztertu beharko dira, baina ez titularra lortzeko, baizik eta eraginkortasuna; hots, segurtasuna.

UGARTE, L. Naiz. 2023-02-12.
Egokitua

6.

ELITEA ETA UNIBERTSITATEA HEGO EUSKAL HERRIAN

Eliteak harreman-sare bat eraikitzen du, eta sare hori hezkuntza pribatuaren bidez garatzen da. Datuen arabera, egun, unibertsitate pribatuetako ikasketak bukatu dituztenen arrakasta-portzentajea handiagoa da ospe eta botere handiko postua lortzeko orduan.

Euskal Herrian, oso populazio-talde txikia da unibertsitate pribatuetan ikasteko aukera duena, % 11; eta krisiaren eraginez matrikula-datu orokorretan atzerakada izan den arren, unibertsitate pribatuaren alde egun ezartzen diren hezkuntza-politikek agerian jartzen dute aginte-instituzioen babesa.

EAE unibertsitate pribatuetan ikasten duen ehunekoa Estatuko batezbestekoaren bikoitza da, eta Nafarroan ehunekoa are handiagoa da. Europako eskaintza pribatuaren ehuneko handienetako bat duen hezkuntza-eredua da gurea, bai unibertsitate-ikasketetan, bai unibertsitatez kanpokoetan.

<www.euskonews.eus>

Zirriborroetarako lekua
Ez da aztertuko hemen idatzitakorik

Zirriborroetarako lekua
Ez da aztertuko hemen idatzitakorik

Zirriborroetarako lekua
Ez da aztertuko hemen idatzitakorik

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

- **1. ariketa:** txertatu testu zatia.
- **Irakurgaia:** «SINDIKALISMOA INDUSTRIA POLITIKAN»

Hutsuneak	1.	2.	3.	4.	5.
Testu zatiak	F	E	D	A	C

Soberakoa	B
-----------	---

- **2. ariketa:** aukeratu erantzuna.
- **Irakurgaia:** «PUBLIKOA/PRIBATUA»

6.	C	7.	A	8.	C
9.	B	10.	C		